



KONTRATAZIO ORGANOAREN ESLEIPENARI BURUZKO EBAZPENA

**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK DEITUTAKO LEHIAKETA, PROZEDURA
NEGOZIATUA PUBLIZITATEAREKIN, HONAKO KONTRATU HAU ESLEITZEKO:
EUSKADI 2020 ENERGIA ESTRATEGIAREN INGURUMEN MEMORIA BAT EGITEKO
LAGUNTZA TEKNIKO ZERBITZUAK**

ESPEDIENTE ZENB.: EIN09.343C

José Ignacio Hormaeche Azumendi jaunak, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN kontseilari-zuzendari nagusi den aldetik, EUSKADI 2020 ENERGIA ESTRATEGIAREN INGURUMEN MEMORIA BAT EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO deitutako lehiaketan, prozedura negoziatua publizitatearekin esleitzeko, hauxe egiaztatzen du.

ADIERAZTEN DU

Kontratazio Organoak egindako balorazio txostenarekin bat etorritz, eta 2010eko abenduaren 21 datarekin, ekonomikoki proposamen egokiena egin zuen esleipendunak, emandako hamar (10) egun balioduneko epearen barruan, legez eskatzen zaion dokumentazio guztia aurkeztu ondoren,

EBATZI DU

- I. EUSKADI 2020 ENERGIA ESTRATEGIAREN INGURUMEN MEMORIA BAT EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKO ZERBITZUAK xede duen kontratua BASOINSA, S.L. elkarteari esleitzea, enpresa horrek 84.7 puntu lortu baitzuen, B gutun-azalaren (iritzi bidez ebaluatu ahal diren irizpideak) eta C gutun-azalaren (formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak) guztizko puntuazio handiena eskuratuta.**
- II. Esleipen honen berri ematea, SPKLen 135. artikuluan xedatutakoa betez, eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.**
- III. Kontratuaren formalizazioa egitea hamabost (15) egun balioduneko epea igaro aurretik, esleitzeko ebazpen hau lizitatzailleek eta hautagaiek jasotzen duten egunetik kontatzen hasita.**
- IV. Esleitzeko ebazpen honen kontra, borondatezko izaerarekin, gorako errekurtsio aurkeztu ahal izango da organo horren aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpen honen berri ematen den egunaren biharamunean kontatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke dagozkien organo judizialen aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, administrazio publikoen arautze juridikoaz eta prozedura administratibo erkideaz diharduen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117.**



artikuluen arabera eta administrazioarekiko auzi-bideen jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Bilbon, 2010eko abenduaren 29an.

José Ignacio Hormaeche Azumendi jn.
EEEko kontseilari-zuzendari nagusia